

# Generoa politika liskartsuaren ikasketan. Gazte aktibisten ereduaren berrikusketa Hego Euskal Herriko ziklo politikoaren aldaketan

Ane Larrinaga Renteria  
PARTE HARTUZ ikerketa-taldea, UPV-EHU

Artikulu honetan genero-ordenaren birsorkuntza aztertzen da politika liskartsuaren barnean gauzatutako ikasketa politiko informalean. Asmo kontra-hegemonikoak dituenean, politika liskartsuak indarrean dagoen eredu soziala eraldatzea eta aktibistak emantzipatzea izaten du helburu. Halaz ere, ETAK bere jardueraren armatua utzi ondoren Hego Euskal Herriko ezker abertzaleko gazte aktibisten artean egindako azterketa kualitatiboak erakutsi digunez, politika liskartsuaren erreperorioek eta ekintzek maskulinitate hegemonikotik hurbil dauden aktibista-ereduak bultzatu dituzte oraintsu arte, eta mendeko posizioan kokatu dituzte neska parte-hartzaileak. Aldaketaren eta jarraitutasunaren aldeko indarren arteko gaur egungo tentsioan, testuinguru liskartsu horietan neska aktibisten agentzia kolektibo disidentek, zehazki, agentzia feministak eratzen lagun ditzaketen faktoreak analizatzen dira.

GAKO-HITZAK: Generoa · Sozializazio politikoa · Gazteak · Politika liskartsua.

## **Gender in learning contentious politics. A review of the models of youth activism in the change of the political cycle in the Basque Country**

This article analyzes the reproduction of the gender order in informal political learning developed in contentious politics. When it has counter-hegemonic objectives, contentious activism tends to try to transform the dominant social model and emancipate activists. However, the qualitative study carried out among young activists of the nationalist left in the period after the armed cessation of ETA shows that the repertoires and actions of contentious politics have until recently promoted activist models close to hegemonic masculinity, and that have placed the participating girls in subordinate positions. In the current moment of tensions between forces of change and continuity, the factors that in these contentious contexts can help to constitute dissident collective agencies of girls and, more specifically, feminist agencies, are analyzed.

KEY WORDS: Gender · Political socialization · Young people · Contentious politics.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.125.2023.5>

*Jasotze-data:* 2022-05-02 *Onartze-data:* 2022-10-05

## 1. Sarrera

Politika liskartsua —*contentious politics* deritzona— politikagintza-eredu jakin bat izendatzeko erabiltzen den kategoria kontzeptuala da. Bourdieuren *champ* kontzeptuaren esanahia abiapuntu hartuta (Bourdieu, 1991; 1999; Bourdieu eta Wacquant, 1992), politikagintzaren barruan politika liskartsuak esparru berezia osatzen duela esan daiteke. Hau da, funtzionamendu-arau jakinak dituen espazio sozial autonomoa da, barnean botere-harremanen arabera egituraturik dagoena; gune horren parte direnak edo izan nahi dutenak bertan baliotsu jotzen diren baliabideak eskuratzeko lehiatzen dira. Politika liskartsuaren dinamikak Euskal Herriko mugimenduetan nahiz euskal estatugintzan ere aztertu dira orain arte (Zubiaga, 2007; 2012). Adiera klasikoan, liskar-esparruak barnean hartzen ditu borroka politiko kolektiboak eta mugimendu sozialak, esaterako, baita beste gatazka modu batzuk ere, istiluak eta grebak, adibidez, eta, noizbehinka, gertakari zabalagoak ere, hala nola gerra zibilak, iraultzak eta demokratizazio-aldiak. Sarritan, jarduera horiek ohiko prozesu politikoeekin batera gauzatzen dira (Tilly, Tarrow eta McAdam, 2004; Tarrow, 2013).

Politika liskartsuaren askotariko adierazpenen artean, gatazka etnikoa edo nazionala oinarri duten borrokek daude (McAdam, Tarrow eta Tilly, 1996). Hain zuzen ere, horiek hartuko dira aintzat artikulu honetan. Izan ere, azken hirurogei urteetan Hego Euskal Herria era askotako politikagintza liskartsuen eremu soziala izan da. ETAren jarduera armatua, ezker abertzaleko erakundeen konfrontazio-estrategia eta estatutik jasotako errepresio-politika bildu dira agertoki horretan. ETAren jarduera armatuaren etenak 2011n eta haren deuseztatzeak 2018an bestelako ziklo politiko bati hasiera eman diote azken hamarkadan.

Jakina da Euskal Herriko politika liskartsuaren sustraietan nazio-gatazka dagoela. XX. mendearen bigarren erditik aurrera, hainbat herri-aldarrikapen sektorial elkartu dira nazio-erakuntzaren ardatz politiko nagusiaren inguruan. Estaturik gabeko beste nazionalismo batzuetan gertatu den bezala, euskal nazionalismoa bere diskurtsoak eguneratzen joan da. Horrela, euskal nazionalismoan ere feminismoa, ekologismoa, antimilitarismoa eta estatuko indarkeriaren aurkako erresistentzia bezalako balio eta praktika alternatiboak integratu dira (Letamendia, 1997). Hain zuzen ere, euskal mobilizazio eta aldarrikapen nazionalaren zikloak azken 40 urteetan izan duen berezitasunetako bat ezkerreko balio klasikoak mugimendu sozial berrien aldarrikapenekin artikulatzen jakitea izan da (Zubiaga, 2014). Horri esker, guztiz aktiboa eta mobilizatu den gizarte zibila eratu da, eta era askotako ekimen herrikoi, komunitario eta talde sozial antolatu dira. Horien artean, talde feministak nabarmentzen dira gaur egun.

Gatazka politikoaren eta gizarte mobilizatuaren testuinguruan, hainbat gazte-erakunde eta -mugimendu «kale-borroka»ren protagonista moduan ezaugarritu dira iraganean (Van der Broek, 2004; Ferret, 2014). Modu desberdinean bada ere, ezker abertzalearen inguruko zenbait gazte politikak liskartsuaren beste formula batzuk erabiltzen ditu gaur egun ere, barbarako, desobedientzia zibila, erresistentzia pasiboa, espazio publikoen eta gune autogestionatuen okupazioak, elkarretaratzeak

eta manifestazioak (Larrinaga, Odriozola, Amurrio eta Iraola, 2023). Gazte horietako askok ezker abertzalearen inguruko mugimendu-konstelazio baten barruan eman zioten hasiera beren ikasketa politikoari nerabezaroan, bai gune formaletan —gazte-eta ikasle-antolakundeetan—, bai bestelako gune ez-formaletan —gaztetxeetan, gune okupatuetan eta abar—. Bertan tradizio aktibistan eta autoeraketan sozializatu dira, aktibismo kontra-hegemonikoan eta politika liskartsuaren logikan (Larrinaga eta Amurrio, 2023).

Ezker abertzalean kokaturiko alderdi nahiz sindikatuekin gertatu den bezala, azken urteetan gazte-erakundeek ere printzipio feministak txertatu dituzte beren estrategian. Izatez, ezkerreko abertzaletasunak beti izan ditu mugimendu sozialekin eta komunitarioekin loturak, eta haiekin batera behin baino gehiagotan gauzatu ditu aliantza kontra-hegemonikoak. Norabide feminista berri horren adibide da Ernai gazte-erakundea: autorreflexio- eta prestakuntza-prozesu luze baten ondoren, independentziarekin eta sozialismoarekin batera feminismoa ere agertzen da bere ildo estrategikoen artean (Galardi, 2017). Bestalde, talde feministen ekarpenak aurreko garaietatik jasotako politika liskartsuko ereduie buruzko kritika zorrotzetan gauzatu dira azken hamarkadan. Izan ere, erakunde politikoen esparru formaletan nahiz ez-formaletan orain arte nagusitu den aktibismo motak eredu maskulinizatuak izan dituela oinarri azaleratu dute egindako azterketek (Alvarez Molés, 2010; 2012; Martínez-Palacios et al., 2015; Etxebarrieta eta Rodríguez, 2016). Hartara, kritika horiek tarteko, joan den mendeko 50eko hamarkadatik gaur egunera arteko euskal gatazka armatuaren historia berriz interpretatzen ari dira hainbat aztertzaile ikuspegi feministatik (Atutxa, 2021).

Gaur egun, talde feminista multzo handi batek osatzen du Euskal Herriko mugimendurik eraginkorrenetakoa —neska gaztez osaturikoa, neurri handi batean—, bai ekimen-ahaltenagatik bai beren gogoeta teorikoarengatik (Odriozola, Iraola eta Zabalo, 2020). Bestalde, presioa egiteko eta mobilizatzeko gaitasun handia erakutsi duen mugimendu feministak komunitatean oin hartutako esperientzia berritzaileak garatu ditu —emakumeen etxeak, adibidez— (Esteban, 2020) eta haren eskakizunek, maila batean, babes instituzionala ere jaso dute azken urteotan, politika publikoen bitartez (Esteban, Hernández eta Imaz, 2017).

Aldaketa-testuinguru horretan, liskar-esparruetan gauzatutako gazteen sozializazio politikoa genero-ikuspegitik gutxi ikertu den azterketa-eremua da oraindik ere. Euskal esparru politikoan, ziklo politiko berriarekin batera, batetik, gazte askoren sozializazio-gune izandako aktibismo liskartsuaren molde gordinenen beharaldia etorri da. Bestetik, gazteen partaidetza-guneetako nesken kopurua handitzen joan da, mugimendu feministaren goranzko eraginarekin bat eginda. Prozesu horiek gaur egun generoaren kategoriak gazteen aktibismo liskartsuan izan lezakeen tokiarri buruzko galderak egitera bultzatzen gaituzte. Ba al dira genero-sistema eta hari lotutako menderatze moldeetan azalpen-kategoria egokiak gazteen aktibismo liskartsuan garatzen diren dinamika sozializatazaileak ulertzeko, desberdintasunen aurrean sentsibilizaturik dauden gune politikoetan? Zer baldintzatan eragin lezake gazte-agentzia kritikoak, zehatzago, ohiko genero-arauen aurkako agentzia feminista disidente eta eraldatzaileak, esparru horretan?

Ondoren garatuko den analisiak bi helburu ditu. Lehenik, balio kontra-hegemoniko eta askatzaileak gidaturiko ikasketa politiko liskartsuak genero-menderakuntzari lotutako moldeak birsortzen dituen jakitea eta, hala bada, erreprodukzio hori zer mekanismoren bitartez gauzatzen den zehaztea. Eta, bigarrenik, Euskal Herrikoak bezalako ziklo politikoaren aldaketa-uneek agentzia feministak sortzeko aukerak ireki ditzaketen ala ez aztertzea, hau da, esparru politikoan naturalizaturik dagoen genero-ordena zalantzan jarri eta hura eraldatzeko estrategiak garatuko lituzketen agentziak.

## **2. Generoa, ikasketa politikoa eta gazteen aktibismo liskartsua**

Aktibismoaren diskurtsoetan maiz erabiltzen diren botere-/erresistentzia-oposizio bitarrek menderatze-ardatz ugari ezkututzen dituzte esparru politiko liskartsuko mugimenduen eraldaketa-praktiken atzean. Elkarri loturik dauden zapalkuntza modu horien artean daude, hain zuzen ere, genero-sistematik eratorritakoak. Ridgeway eta Correll (2004) aztertzaileek diotenez, generoa jardunbide sozialen sistema instituzionalizatua da, pertsonak bi kategoria nabarmenki ezberdinen barruan eraten dituen, —emakume eta gizon— eta, desberdintasun horretan oinarrituta, ekitaterik ezean antolatzen dituen harreman sozialak. Diferentziak eta ekitaterik ezak ezaugarritutako beste maila anitzeko sistemak bezala —arrazo, klasea, nazionalitatea eta abar—, generoak ere barnean hartzen ditu, hurrenez hurren, kultura-sinesmenak, araubideak eta baliabide sozialen banaketak makro-esparruan, antolakundearen jokabide-ereduak eta praktikak interakzioaren esparruan, eta identitateak esparru indibidualean.

Generoaren botere-harremanak mugimendu sozialen egitura sakonaren parte dira, eta esparru aktibistaren estrategiak eta kulturak baldintzatzen dituzte (Bhattacharjya et al., 2013). Politika liskartsuan, eskura dauden taktiken eta erreperorioen aukera-egitura funtsezkoa da mugimendu batean inplikaturako banakoen eta antolakundearen rol generizatuak ulertzeko (Ennis, 1987). Aldi berean, genero-ideologiak ekintza aktibistaren estrategien eta erreperorioen determinatzaile gisa jokatzen du (Asal et al., 2013). Nazioz gaindiko azterketek erakusten dutenez, emakumeek eta gizonek antzeko inplikazio-mailak dituzte protesta-jardueretan, baina emakumeek gizonek baino aukera handiagoa dute konfrontaziorik gabeko jardueretan parte hartzeko. Aldiz, ohikoagoa da gizonek ekintza erradikaleko erreperorioetan parte hartzea (Dodson, 2015). Hala, «joko berean parte hartuta» ere, emakumeek eta gizonek rol bereziak betetzen dituzte (Coffé eta Bolzendahi 2010), eta ekintza politiko ez-konbentzionalak, hala nola desobediencia zibila, ekintza zuzena edo indarkeria politikoak, mutilek menderatutako jarduerarako eta ikaskuntza politikorako guneak izan ohi dira (Kuhn, 2010).

Indar fisikoaren, borrokarako grinaren eta ausardiaren ohiko dimentsio maskulinizatu jakin batzuk lehenetsita, praktika liskartsuek irauli nahi duten ordena bera indartzen dute sarritan (Montesinos-Coleman eta Bassi, 2011). Ildo horretan, aktibismo liskartsuaren irudikapenek konpromiso politikoaren ereduak egituratzen dituzte, eta horietara egokitzen ez diren ahots eta gorputzen bazterketak eta menderakuntzak sortzen dituzte. Horrela, «aktibista ideal»aren identitateak

markatu ohi du legitimotzat jotzen den aktibismo mota (Bobel, 2007), batez ere politika liskartsuaren ekintza zuzenera bideratua. Maskulinitasun hegemonikoaren (Connell eta Messerschmidt, 2005) ezaugarrietatik definituriko identitate horrek *habitus* eta trebetasun jakin batzuk ditu ezaugarri, baita horiei lotutako sariak ere, eta egingarriagoa da mutilentzat neskentzat baino.

Generizatutako patroien eskuratzeko eta barneratze-prozesua, aurretik datorren sozializazio primarioaren jarraipen eta errefortzu gisa gertatzen da sarritan (Kuhn, 2010; Hooghe eta Stolle, 2004), halako moldez non «eguneroko sexismoak» gazteen kontzientzia arrunta kutsatzen duen (Calder-Dawe eta Gavey 2016). *Habitus* moduan barneratutako egitura kognitiboek (Bourdieu 1990; 2002) kategoria femenino eta maskulino gisa sailkatzen laguntzen dute ezaugarri eta praktika sozial jakin batzuk, eta horien erreproduktzio naturalizatua ahalbidetzen dute hainbat mailatan, egiturazkoan, interakzionalean eta subjektibotasunenean, hurrenez hurren (Neetu et al., 2017).

Ikaskuntza politiko generizatuari buruzko ikerketek bereziki nabarmendu dute sozializazio politikoaren erreproduktzioaren alderdia. Behin eta berriz, eta hainbat testuingurutan, egiaztatu dute nola gertatzen den lan aktibistaren ohiko banaketa generizatua, zeregin aktibisten bereizketaren, hierarkiaren eta ikusgarritasunaren printzipioen arabera (Larrinaga eta Amurrio, 2017). Era berean, agerian utzi dute nesken botere sinbolikorik eza eta haien menderakuntza-egoera esparruan, eta erakutsi dute zer-nolako loturak dauden maskulinitasun hegemonikoaren eraikuntza sozialaren eta aktibismorako ezinbestekotzat jotako ezaugarrien definizioaren artean; ezaugarriok barnean hartzen dituzte, besteak beste, mintzamina, menderatzeari lotutako gaitasunak, arazoimenaren erabilera —emozioaren aurrean— eta gorputz-disposizio jakin batzuk. Horiek guztiek *habitus* aktibista estandarra osatzen dute (Bargel, 2005; Martínez Palacios et al., 2015).

Beraz, erreproduktzioaren alderdia azpimarratzen duen sozializazioaren ikuspegiari dagokionez, gazteen parte-hartzeari eta politika liskartsuari buruzko ikerketek bat egiten dute nabarmentzean emakume gazteek parte-hartze defizitariora jasaten dutela eta gizonek baino ahalegin handiagoa egin behar dutela nortasun aktibista legitimatzeko (Gordon, 2008; 2009; Taft, 2010; 2014). Hartara, emakumeek aukera gehiago dute oztopoak izateko aktibismo liskartsua gauzatzean, eta eragin emozional negatiboak ere bizitzeko beren ikaskuntza politikoan, batetik, ezarritako irizpideak ez dituztelako egoki betetzen (Craddock, 2019), eta, bestetik, irizpide horietara doitzeko kostu pertsonal handiak dituen etengabeko ahalegina egin behar dutelako.

Halaz ere, sozializazio politikoa ez da soilik herentzia transmititua eta eredu barneratuen erreproduktzio jarraitua. Gazteek agentzia gisa ere jarduten dute beren ikaskuntzan (Amnå et al., 2009). Horrela, ikaskuntza politikoko testuinguruak laborategi sozialak dira, eta gazteek, agentzia diren heinean, esparru aktibistaren kultura osatzen, birmoldatzen eta eraldatzen duten jarrera eta portaerekin esperimendatzen dute beren praktikan. Sozializazio politikoaren bigarren ikuspegi horri esker, gogoeta egin ahal izan da lidergo feministek duten eginkizun eraldatzaile eta birsozializatzaileari buruz, hausnarketa kritikoko prozesuei buruz eta, ondorioz, mugimenduetan eta testuinguru aktibistetan abian jarritako aldaketa-programei

buruz (Batiwala, 2010; Wakefield, 2015). Ildo horretatik, hemen planteatzen dugu esparru aktibistan genero-sistemaren aldaketarako aukera-egiturak mugimenduaren barnean zein mugimendutik kanpo —haren testuinguru edo esparru politikoan— ulertu behar direla.

Protesta-politiken eta mugimendu sozialen aztertzaileek *aukera politikoaren egitura* (Political Opportunity Structure) kontzeptua sortu zuten mugimenduen garapena eta aldaketa baldintzatzen duten testuinguruko elementuak izendatzeko, kanpoko baliabide gisa ulertuta elementuok. Ikuspegi feministatik, Taylorrek (1999) iradoki zuen emakumeak mobilizatzeko eta protestatzeko aukera politiko eta kulturalen egituren aldaketak aztertzea, egoera jakin batean genero-harremanen joko-egoera jakin bati erreferentzia egiten dion *genero-erregimenaren* kontzeptuaren bitartez. Taylorrek argudiatzen duenez, kontzeptu horrek erakusten du genero-estratifikazioaren egiturazko adierazpenak, eta haien justifikazio ideologikoak, aldatu egiten direla testuinguru sozial batetik bestera. Oraintsuago, ikuspegi bourdieutar batetik, Ancelovicik (2021) adierazi du *esparru liskartsuaren aukera-egitura* ez dela mobilizazioetatik kanpo dagoen elementu gisa soilik ulertu behar; aitzitik, esparru barruko harremanen eta interakzioen emaitza gisa ere agertzen dela. Horrela, mugimenduetan parte hartzen duten aktibistek mugimenduon aukera-egitura eraikitzen eta hari forma ematen laguntzen dute testuinguruarekin dituzten harremanetan, eta biek ala biek eratzen dute elkar. Proposamen kontzeptual horretatik abiatuta, kanpotik ez ezik, mugimenduen barrutik ere jarduten duten mugimendu feministen eta agentzia feministen eragina iker daitekeela ikusten dugu aukera politikoaren egituraren eraikuntzan. Bada, mugimenduen barnean ere genero-harremanak aldatzeko aukera-leihoak irekitzea helburu duten subjektu disidentek osa daitezke.

Horiek horrela, esparru aktibista maila anitzeko hainbat indarrek elkarren artean modu gatazkatsuan eragiten duten esparru gisa uler daiteke, eta haren barnean autonomiaren eta konstriktzioen arteko, edo esanahi berrien eta testuinguru kultural nagusien arteko borrorak eta transakzioak gertatzen dira etenik gabe. Gaur egun, alde batetik, feminismoa bezalako korronte eraldatzaileek jarduten dute; feminismoak, teoriaren eta ezagutza alternatiboaren marko bat eskaintzeaz gain, aldaketaren aldeko aktore politiko gisa ere ekiten du. Bestalde, aldaketari eusteko bat egiten duten oraingo korronte kultural nagusiak ere baditugu: indibidualizazio-prozesuak, lehia kapitalista, eta emakumezko agentzia indibidualizatuaren eta aukeratzeko askatasunaren diskurtsoekin belaunaldi berriak interpelatzten dituen erretorika neoliberalak, besteak beste. Azken indar horiek aldi oro ahalegintzen dira agentziaren eta erresistentziaren diskurtsoak berreskuratzen eta maskulinitate hegemonikoaren eredu iraunkortasuna estaltzen (Gonick et al., 2009; Scharff, 2016).

Borroka sinbolikoen inguruabar horretan, non kokatzen diren aktibismoaren barruko genero-bazterkeriak izendatzeko eta ikusarazteko ahaleginak eta aldaketaren aldeko aukerak irekitzeko esfortzuak, ikerketa feministak ere konfrontazio-testuinguru espezifikoak aztertzen hasi dira azken urteotan, esate baterako, indarkeria darabilten borroka nazionalistak. Azken horietan talde armatuek mugimendu-konstelazio

zabalagoen barruan jardun dute eta, aldi berean, mugimendu multzo horiek intentsitate txikiko konfrontazio formak erabili dituzte (Balcells, Daniels eta Escribà-Folch, 2016). Azterlan feministek aipatu mugimenduen dinamika patriarkalak aztertu dituzte. Baina, era berean, parte hartzen duten emakumeei ahotsa emanez, eta emakume gazteak konfrontazioan sartzeak genero-sistema tradizionalaren elementu disruptibo gisa izan dituen ondorioak aztertuz, azterketa horiek parada eskaini dute mugimenduetako agentzia feministen eraikuntza ezagutzeko eta haien barnean dirauten zapalkuntza-sistema elkartuak —nazionala, klasekoa, kulturala eta generokoa— identifikatzeko, (Moser eta Clark, 2001; Hamilton, 2007; Alison, 2009; O’Keefe, 2013; Rodríguez Lara, 2017).

Hain zuzen ere, gazteen ikaskuntza politikoari buruzko gure azterlanak garapen feministarako espazio «ez-probable» (O’Keefe 2013: IX) horietako batean jartzen du arreta, hau da, tradizioz emakumeen kaltetan genero-harremanak birsortzea ezaugarri izan duen eremu patriarkal batean. Herentziak eta aldaketa politikoak bat egiten duten une historiko honetan, konfrontazio gutxiagoko jardunbideetaranzko trantsizio-garaietan, borroka feministarako aukerak eta agentzia feministak sortzeko baldintzak aztertuko ditugu azken hamarkadako ezkerreko euskal gazte-mugimenduan.

### 3. Metodologia

Ondoren aurkezten den analisisia Hego Euskal Herriko gazteen parte-hartze politikoari buruzko ikerketa kualitatibo batean oinarriturik dago. Ikerketa enpirikoa 2018 eta 2019 urteetan egin zen (Larrinaga, Zabalo, Epelde, Iraola, Odriozola eta Amurrio, 2020; Larrinaga, Iraola, Odriozola, Amurrio, Zabalo eta Epelde, 2021). Beraz, ez dira ikerketan sartu urte horietatik aurrera sortu diren gazte-antolakundeak. Erabilitako metodologia kualitatiboak gazteek nerabazarotik aurrera osatutako ibilbide politikoan zenbait kontakizun berreraikitzen utzi digu, eta beren aktibismoaren ikasketa politikoan bizitako esperientziei eman dizkieten zentzuak identifikatzen, gatazkak, konfrontazio politikoak eta errepresioak ezaugarritutako testuinguru batean. Era berean, ahalbidetu digu neskek eta mutilak prozesu parte-hartzailerean gara dezaketen agentzia-ahalmena ezagutzeko, egitura sozialek, botere-banaketak eta kokapen sozialek batzuei eta besteei emandako aukeren markoan. Metodologia kualitatiboa erdiegituratutako sakoneko elkarrizketen bitartez garatu da (Valles, 2002); batzuei beste bi orduko iraupena izan dute.

Artikulu honetarako hautatutako lagina 18 eta 35 urte bitarteko 22 gaztek eta gazte-helduk osatzen dute —horietako 10 emakume gisa, eta 12 gizon gisa sozializatuak—. Profil desberdinak dituzte jatorri soziogeografikoari eta aktibismo motari dagokienez. Adin-tarte zabala abiapuntu hartuta, laginean gazte-belaunaldi desberdinek bizi izandako ikasketa politikoa jaso nahi izan da ETArekin jardueraren etena baino lehenagoko eta ondorengo uneetan eta, hartara, ziklo politiko berriaren hastapenetan. Elkarrizketaturiko gazte gehienek hasiera politikoa ezker abertzalearen eta herri-mugimenduen inguruko organizazioetan, esparru ez-formaletan eta mugimenduetan gauzatu zen. Oro har, gazte horiek multiaktibismoan aritu dira, heziketa-maila handia dute eta kapital politiko esanguratsua eskuratu

dute, nerabezaroan hasitako ibilbide politiko goiztiarrari eta gune parte-hartzaileetan izandako eskarmentu luzeari esker. Gaur egun ere, askotariko erakunde eta mugimenduetan jarduten dute, ez halabeharrez hasierako ikasketa politikoaren guneetan. Nolanahi ere, azterketa honen fokua ez da jarri gaur egungo aktibismoan, nerabezaroko eta lehen gaztaroko ikasketa eta esperientzia politikoetan baizik.

Anonimotasuna babesteko, testuan zehar erabiliko diren elkarrizketatuen aipuetan ez da agertzen elkarte, erakunde edo mugimenduen izenik. Laginean ahalik eta aniztasun handiena lortu nahi izan denez, honako hauexek dira elkarrizketatuak atxikita dauden erakundeak edo mugimenduak: gazte-mugimendua, indar politiko baten gazte-erakundea, sindikatu abertzalea, ikasle-organizazioa, gune kultural autogestionatua, okupatutako etxebizitza-komunitatea, erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimendua, erakunde feminista, euskararen aldeko elkarte, trantsizio sozioekologikorako taldea, ekonomia sozial eraldatzailearen sarea, aktibismo digitala, jai herrikoien antolakuntzarako taldea, lan-prekarietatearen aurkako taldea, errefuxiatuak hartzeko organizazioa eta arrazakeriaren kontrako elkarte.

#### **4. Irudikapen aktibista nagusiak eta genero-bazterketak politika liskartsuaren ikasketan**

Egindako elkarrizketen analisiak erakusten du ordena maskulinoa nagusi izan dela ezker abertzalearen gazte aktibismoaren barnean hainbat belaunaldiz garatutako ikasketa-politiketan. Beren ibilbide aktibistak gogoratzean gazteek egin dituzten bizi-esperientzien kontakizunetan, izaera androzentrikoa duen sozializazio politikoa irudikatzen dute. Dominazio maskulinoa berresten duten mekanismo sinbolikoak hainbat mailatan adierazten dira. Lehenik, lan politikoaren genero-banaketan. Izan ere, esparru politikoan lan hori eginkizun produktiboaren luzapen naturalizatu bihurtu baita mutilei dagokienez, eta etxeko lanaren luzapen neskei dagokienez. Bigarrenik, neskek eta mutilek okupatzen dituzten espazioen egitura sinbolikoan islatzen da. Bada, sarritan neskak ikusten ez diren guneetan aritu dira lanean. Azken horiek aktibismo liskartsuaren ertzetan kokatzen dituzte beren buruak, eta hortxe bertan irudikatzen dituzte mutilek ere —«atzean», «itzalean»— eta, horrela, publiko/pribatu binomioa birsortzen dute. Azkenik, aktibismoaren denboraren egituran ere adierazten da dominazio hori. Dedikazio intentsiboaren ereduak eta arautu gabeko ordutegiak mutilen inplikazioaren alde egiten baitute.

«Taldean daude pertsona batzuk modu pasiboan lan egiten dutenak, adibidez, testuak egiten edo baimenak eskatzen, edo ez dakit zer, eta emakumeak dira» (Neska, 25).

«Adibidez, mobida baldin bada gogorragoa edo, gehiago izaten dira mutilak. Eta, aldiz, aisialdi taldean gehiago dira neskak» (Mutila, 18).

Praktika politikoaren izaera liskartsua konfrontaziora bideratutako erreperitorio politiko dominanteetan islatu da —eta ondorengo erantzun errepresiboetan—. Ezaugarri hori erabakigarria izan da eredu horren nagusitasunean. Praktika politiko molde horrek berariazko *habitus* bat eskatzen du, Bourdieuren terminoetan (1991; 1999), hau da, kokapen sozialari lotutako disposizio-sistema iraunkorra; disposizio horiek antolatzen eta egituratzen dituzte, hain zuzen ere, pertsonen



praktikak eta irudikapenak esparru liskartsu kontra-hegemonikoan. Bestalde, aipatu disposizioak fisikoki hezurmamituta agertzen dira gorpuzkera-eredu jakin batzuetan —disposizio fisikoak, gorputz-jarrerak, keinuak, ibilerak, hizkerak, ahots motak, janzerak, orrazkerak eta abar—; horiek guztiek maskulinitate dominantearen balio estereotipatuak irudikatzen dituzte, hala nola ausardia, arriskuari erronka egitea, oldarkortasuna eta ahalmen fisikoaren erakustaldia. Mutil gaztetxo askoren ikasketa politikoak aktibista-eredu hori barneratzea eta indartzea ekarri du. Neska gazteak, berriz, eredu nagusia berdintzen ahalegindu dira, batez ere ikasketaren hastapenetan, eta horietako askok aktibismo liskartsuaren epikak erakarrita jardun dute. Ezin dugu ahaztu gaztetxo horien guztien hastapen politikoak adin goiztiarretan gertatu direla, identitatea eta subjektibotasuna osatzeko erabakigarriak diren urteetan. Hala, taldean integratzeko eta onartuak izateko grinak, batetik, eta ideologiazko nahiz emoziozko identifikazioak, bestetik, oztopatu egin dute lehen urteetan haien gaitasun kritikoa edo disidentea.

«Seigarren mailan nengoela, gogoratzen dut bi aukera ikusten nituela ortzi-mugan, borroka izatea edo raperoa izatea, eta nik borroka izan nahi nuen (...) Lehenengo kale istiluak 13 urterekin bizi izan nituen (...) Akzioa eta adrenalina hori guay zegoen (...) *SEG*/ren ilegalizazioa dela eta gogoratzen dut egin genuela kriston kontzentrazioa ke poteekin eta abar (institutuko) patioan, 15 urte genituela edo» (Mutila, 26).

«Ostegunero etortzen ziren txakurrak, etortzen zen polizia nazionala, eta egiten ziren kontzentrak presoengatik eta bide mozketak ere bai justu institutuaren parean (...) Gu txiki-txikiak ginenez, dena ikusten hesiik (...) Orduan, gatazka bizi bizian ikusten zen (...) Guk ikusten genituenak ziren *los gudarís, que nos gustaban porque estaban super buenos* (...) [14 urterekin] sartu nintzen *en todo lo que me podía meter*. Uste dut, alde batetik, jaso nuela gatazkaren gordintasuna eta horrek ni ere interpelatzen ninduen eta, gero, jaso nuen pixka bat ekintzaren erakarpena (...) *porque justo eran los chicos que nos encantaban*» (Neska, 27).

Bestalde, elkarriketaturiko gazteen kontakizunek erakusten dute genero-zuzentasuna eskatzen duten neska feminista gero eta kopuru handiagoaren integrazioak gazte-mugimenduetan eta organizazioetan izandako eragina. Integrazio hori dela eta, denboraren poderioz, gune aktibistaren menderatze moldeak modu sotilagoan adierazi dira. Era berean, diskurtsoak ere interpretazio-marko berrietan kokatzen joan dira, bereziki mutilenak. Jar dezagun arreta elkarriketetan identifikaturiko bi diskurtsotan. Mutil batzuen lehen diskurtsoak nesken presentziaren handiagotze kuantitatiboa berdintasunaren sinonimotzat hartzen du. Zuzentasun politikoaren gainazalpean, nesken parte-hartzearen ikuspegi babestua eta adeitsua eskaintzen dute. Horrela, modu sutsuan defendatzen dute neska «boteretsu»-en eta «borrokalari»-en aktibismoa. Eta, hori egitean, menderatzea alderantzikatzen dute, beren irudikapenetik at utzita dominazio patriarkalaren oinarriak: antolakuntza-kultura androzentrikoa, aktibisten arteko botere- eta kokapen-hierarkien banaketa, agendak eta ekintza motak baldintzatzeko agentzia-ahalmen bereizgarria, gorputz batzuk esparru aktibistatik kanporatzeko joera, eta biolentzia sinbolikoaren erabileraren beste mekanismo batzuk. Esan nahi baita, printzipio feministak formalki integratu dira mutilen diskurtsoetan, baina badirudi onespen hori ez dela norbere pribilegioaren interpelazio pertsonalera ailegatu sarri askotan.

«Hemen denok gara berdinak (...) Eta neskei ez zaie ezer ukatzen ez ezer esaten. Egiatan, nik esango nuke neskek lan gehien egiten dutela taldearen barruan. Borrokalariak dira, gehien parte hartzen dutenak» (Mutila, 32).

«Nire ustez, borroka feministaren bidez kriston ahalduntze bat ematen ari da, eta ari dira gauza asko mahai gainean jartzen» (Mutila, 18).

Praktikan, gazteen mugimenduetako «lagunen suaren» adierazpen horiek (Taylor, 1998) neskei rol jakinak esleitzearekin batera agertzen dira azterturiko kontakizunetan, eta rol horiek nesken mendeko posizioa indartzen dute. Modu paradoxikoan «izendatzeko eta instituitzeko gaitasuna» dutenek (Bourdieu, 1991) ematen dituzten rolek nesken konplizitatea behar dute ordena patriarkala birsortzeko. Zenbaitetan, konplizitate hori inkontzientea da eta, beste zenbaitetan, kontzientea baina saihetsezina, aurretiko sozializazioa, adin goiztiarra, baliabide kulturalak edo identifikazio emozionala eta kidesun ideologikoa tarteko. Hona hemen identifikatu diren neskei esleituriko rol batzuk, banan-banan aipatuta. Lehenengo rola, batez ere beren sozializazio politikoaren hastapenetan neskek esfortzu handiarekin betea, ideal aktibista maskulinoak antzeratu nahi ditu. Ildo horretan, beren disposizioak ezarritako estandarrerara ahalik eta hoberen egokitzen saiatu dira neskak, hitz egiteko moduak, jendaurrean aurkezteko erak, itxura fisiko «ahaldundua» eta asertibitatea baliatuta. Nesken bigarren rola feminismoaren printzipioen integrazio progresiboaren ondorioz etorri da. Horrela, izendapenak «feministaren rol instituzionalizatu» eratu du; neska batzuei esleitzen zaie rol hori, emakumeen aktibismo espezializatu gisa, baina murriztua funtzioetan eta mugatua eskuduntzan. Azkenik, hirugarren rola zenbait neskari esleitutako aginte bikarioan oinarritzen da. Hala, neska jakin batzuei emandako ezohiko rola izaten da, aitortza diferentziala dakarrena mutilezko liderren aldetik, azken horiek «beren maila berean» kokatzen uzten baitiete, salbuespenez.

«Orokorrean, espazio politiko guztietan, eta, nik esango nuke are gehiago borroka sozialetan (...) emakumeok hitz egiten dugunean da bakarrik hitz egiteko [auzi] feministaz, eta "feminista" puntilla jarri behar dugu oraindik. Egunen batean, irabaziko dugu, eta ez da beharrezkoa izango. Eta espazioen disputa oso inportantea izango da datozen urteetan» (Neska, 25).

«Garai hartan bizi izan nuen ni nintzela feminista ero bat, ia kasurik egiten ez ziotena. Baina, behar izatekotan demostratu abertzaleaz gain feministak zirela, niri deitzen zidaten bilera batera joateko, eta abar» (Neska, 32).

«Gaztetxean taldeko gehienak mutilak dira, eta nirekiko ez dute inoiz arazorik jarri. Oso ondo eramaten naiz haiekin. Baina, gaztetxeko talde horretan konturatu naiz beste neskak atzerago daudela edo; baina, oraindik ez dut ulertzen zergatik. Ez dut uste denik mutilek zerbait esan dutelako, baizik eta ez dutelako hitz egiten» (Neska, 23).

Azterketan identifikaturiko nesken eta mutilen arteko diskurtsoen desberdintasunek behin eta berriro garamatzate esparruan inplikaturiko aktibisten kokapen bereizgarrietara. Horrela, mutil batzuek neska aktibisten errepresentazio sozial lausoa egiten dute, pertsona ahaldundu eta borrokalari gisa ezaugarrituta. Ildo horretan, maskulinizatutako kultura aktibistaren naturalizazio-mailak esparru liskar-tsuari baliotsu diren ondasun sinbolikoen banaketa asimetrikoa estaltzen laguntzen

du, eta erraztu egin du mutil aktibistek modu espontaneoan bizi dezaten beren pribilegioa, «gauzen ordenaren barruan» dagoelakoan. Zenbait mutilek sineste sendoa dute politika liskartsuan parte hartzeak berez ematen duela, baita modu unibertsean eman ere, aktibista boteretsu izateko kalitatea, berez ematen duela agentzia-gaitasuna eta ahalduak indibiduala. Ideia horrek, gainera, indarra hartu du azken aldiko gazteen artean, modernitate berantiarri eta kapitalismo neoliberalari dagozkien gazte-subjektibotasunen izaerarekin konektatzen duelako. Ikusi denez, azken egitura kultural horiek arrakastaz gaituzte dituzte esparru aktibista kontra-hegemonikoaren mugak, gradu desberdinetan eta aldaketekin bada ere. Esaterako, «aukerako biografien» ideiak, baldintzatu gabeko agentzia indibidualari buruzko sinesteak, eta norbanakoaren autosorkuntza-ahalmenaren inguruko ikuskerak hainbat gazte aktibistak partekatutako pertzepzioetan azaleratzen dira, bai beren buruaz bai jarduten duten munduaz dauzkaten ikusmoldeetan. Dena den, bigarren diskurtso argi batek ezeztatu egiten ditu mutil gazte zenbaitek neska aktibistei esleitutako ahalduak eta indarra. Aipatu diskurtsoak neska batzuek beren ikasketa politikoa zehar bizi izandako bizipenetan sakontzen du.

Horrenbestez, bigarren diskurtso hori beren luzaroko ibilbide politikoak gaur egungo begirada feministatik ebaluatzen dituzten nesken adierazpenetan oinarritzen da. Neska horiek genero-aktibismoari lotutako «genealogia politiko»-en barruan (Elizalde, 2018) sozializatu dira familia-gunean, eta esperientzia aktibista garrantzitsuaren jabe dira mugimenduetan eta organizazioetan. Hain zuzen ere, kapital sinbolikoaren metaketa horrek agentzia izateko boterea eman die. Begirada disidentea garatzeko gaituta egonik, batzuetan, aktibismoaren barruan bertan kontrabotere-ekintzak eta erresistentzia feministak gauzatzeko saioak bultzatu dituzte.

«Gazte asanbladan denak ziren mutilak. Orduan zegoen, alde batetik, gazte asanblada eta, bestalde, asanblada feminista. Asanblada feministaren helburuetako bat zen gazte asanbladan emakumeak egotea eta gazte asanblada bera aldatzea ere, zeren ez zen kasualitatea denak mutilak izatea» (Neska, 32).

Elite subordinatuak diren heinean, neska horiek kokapen kontraesankorra dute pribilegio/zapalkuntza ardatzean eta, kokapen horretatik abiatuz, beren esperientzien bitartez bizi izandako bazterketak berresten dituzte, hala generoan nola adinean oinarritutakoak. Konfrontaziora bideratua egotean, praktika politiko liskartsuan eskatzen den gorpuzkera maskulinoak kanpoan utzi ditu edo esparruaren ertzetan aritzera behartu ditu neskok. Implizituki, beren gorputzak gorputz ahul, zaugarri eta ez-segurua dira esparru liskartsuan. Izatez, emakume gisa sozializatutako edo maskulinitate nagusi heteronormatibotik aldendutako gorpuzkerak ez dira iristen konfrontazio-jardueretako estandar nagusira. Esparru liskartsuan abiapuntu hartutako definizio murriztailea estu lotuta dago maskulinitatearen definizio sozial hegemonikoarekin, eta hortik genero-sisteman oinarritutako hierarkiak eta identitate aktibista bereizgarriak sortu dira; horien arabera, neskek agintez desjabeturik geratu dira. Horiek horrela, hainbat neskek sentitzen dute gorputz ahul eta kalteberei aktibismo liskartsuan ezarritako mugak beren interes eta iritzien gutxiespenean gauzatu direla. Ahotsen isiltze horrek adierazpen desberdinak dituen nesken ondoezaren somatizazioa eragin du.

Horiek horrela, mutilen kontakizunek ez bezala, nesken sozializazio aktibistaren memoriak era guztietako bizipen emozional negatiboak biltzen ditu, ikasketa-esperientziei lotutakoak. Ahmeden hitzak erabilia, «zoriontasunik gabeko historia feministen artxibo»-en adierazpen argiak dira (Ahmed, 2009). Gorputza kulturaren oinarri existentziala den neurrian, emozio negatibo horiek mendekotasunaren somatizazio gisa (Csordas, 1993) agertzen dira. Horrela, emakumeen gorputz desautorizatuek hainbat modutan adierazi dute beren erruduntasuna: lotsak, segurtasunik ezak, antsietatea, urduritasuna, isiluneak eta «benetako» aktibisten maila berean ez egotearen sentsazioa izan dira horietako batzuk. Nerabezaroan gazteok ez ziren gai izan bizi izandako ondoezari eta neurrigabeko autoexijentziari izena emateko. Baina, gerora, sentipen horiek kausalitate eta profil garbiagoak hartu dituzte, bereziki, identitate aktibisten heldutasuna identitate feministen garapenarekin batera gauzatu denean. Halaz ere, ikasketa politikoaren esperientzia nekezak politika liskartsua uztera bultzatu du hainbat neska eta, zenbaitetan, konpromiso politikoa esparru «seguruago» eta irisgarriagoetara lekualdatzera —aktibismo feministara edo gaur egungo agenda aktibistetako molde gero eta dibertsifikatuetera, besteak beste—.

«Ez zen egitura eroso niretzat (...) Adin horrekin ez duzu kuestionatzen, ez dakizu hitzetan jartzen, badakizu ez zaudela eroso, baina ez dakizu zergatik. Gero jarri dizkiot hitzak» (Neska, 25).

«Gogoratzen ditut urte horiek, interesgarriak, emankorrek izan ziren, baina uste dut pasa nituela nire lotsak eta nire momentuak (...) Orduan, uste dut garai horretan hasi nintzela garatzen pertsonalitate bat edo itxura bat de... “txukuna naiz, badakit gauzak egiten, lengoia batzuk ere asumitzen eta nireak egiten” leku horietara egokitzeko. Eta autoexijentzia bat ere izan nuen. Nik militantzian autoexijentzia handia izan dut (...) Gainera, ziren garai batzuk klandestinitate hutsean ibiltzen ginena, eta denak ziren gizonak, (...) eta ni baino helduagoak» (Neska, 27).

## **5. Eredu aktibista generizatuak aldatzeko aukerak ziklo politiko berrian**

Euskal Herrian hasitako ziklo politikoak aktibismo liskartsua, aktibismo horren erreperitorioak eta genero-sistemaren birsorkuntza berrikusteko aukerak zabaltu ditu. Aldaketaren aldeko aukera-egituran bat egin dute tokiko faktoreek eta modernitate berantiarrean garatutako aktibismo moldeen joera orokorrek. Izan ere, modernitate berantiarrean aldaketak gertatu dira politika eta subjektu politikoa ulertzeko moduetan. Subjektu hori plurala eta deszentratua da dagoeneko (Gil, 2011; Esteban, 2015), ez dago alde zuzenetik eraikitik; horrek dibertsifikazioa eta desberdinen arteko aliantzak sortu beharra eragin du. Bestalde, aktibismo ereduak ere aldatzen joan dira Euskal Herrian. Arkaitz Letamendiak (2018) adierazten duenez, gazte aktibisten artean ez ezik beste talde batzuetan ere konfrontazio-ekintza zuzenak izan dira eredu nagusia hiru hamarkadatan —barrikadak, poliziarekin liskarrak, fabrikak blokeatzea—. Azken hamarkadan, aldiz, ekintza-erreperitorio sinbolikoagoa eta autoespresiboagoa agertu da, besteak beste, mosaikoak eta jende-kateak, ohiko desobediencia zibilari lotutako erresistentzia moldeak, performance kolektiboak, eta plaza eta guneen okupazioak. Mugimendu desberdinen borroken eragina ere aldatzen joan da. Horrela, langileen askapenean eta askapen nazionalean oinarrituriko borroka tipikoki modernoetatik,

gatazka dibertsifikatuagoen aldeko eredueta egin da jauzi, apurka-apurka. Ildo horretan, borroka feministarekin edo prekarietatearen ondorioekin lotutakoek —etxegabetuen, langabetuen, prekarizatuen eta pentsiodunen mugimenduek, esaterako— gero eta protagonismo handiagoa hartu dute.

Testuinguru horretan, ETaren jarduera armatuaren desagerpenak ahuldu egin du 80ko hamarkadatik aurrera ezker abertzaleko gazte-erakundeek gauzatutako politika liskartsuaren indarra. Egoera berrian mugimendu horiek barnera begiratu eta gogoeta-ariketa bat egin behar izan dute beren identitateaz eta ekintza-errepertorioez. Herri-organizazioen barne-funtzionamenduari buruzko hausnarketa kolektiboa egin duten erakundeak ere sortu dira mugimenduen esparruan. Ikerketa-ekintzaren metodologia parte-hartzailea abiapuntu hartuta, botere-harremanen eragina, aktibisten elkarren zaintza, genero-araubidearen inpaktua, eta antolaketa horizontalaren formak analizatu dituzte (Zumalabe Fundazioa, 2014). Bestalde, erreflexibitate-saiakera horiek denboran bat etorri dira ezker abertzaleko mugimenduen barnean zein kanpoan —beste mugimendu batzuetan— eratutako subjektu feministen antolatze- eta heldutasun-fase biziagoarekin, non hainbat belaunaldi eta genealogia feminista bildu diren. Azken horien eragina nabarmena izan da kontzientzia sozialaren aldaketan, bereziki, genero-indarkeriaren eta zaintzaren konpromiso sozialaren inguruan —pandemiaren astinaldi sozialak ere azken eztabaida hori berpiztu du, dudarik ez—. Ildo berean, gazte-mugimendu abertzaleetan egindako barne-lana ere esanguratsua izan da, bertan neska-talde feministek agentzia kolektibo gisa jardun baitute luzaroan. Hala, «kontra-publiko subalterno» moduan (Fraser, 1990) eratuta, oposiziozko interpretazioak egin dituzte, eta identitate eta interes propioak garatu.

«Gazte mugimendua zegoen (...) “goazen gure burua birpentsatzera, goazen harremanetan fokua jartzera, goazen saretzera”..., eta apur bat ateratzen erantzun fase batetik. Ez dakit, beste klabe batzuetan zegoen, fase eraikitzaileago batera pasatzeko. Orduan, nahiz eta momentu hartan ez deitu hitz hauekin, oinarri inportante bat izan zen feminismoa, eta ez jartzea hainbeste begirada mundua aldatzeko kanpoan zer egin behar genuen, baizik eta gure baitan guk zer nolako rol, zer nolako botere harremanak erreproduzitzen genituen gazteen artean (...) Topatu nintzen egitura patriarkalarekin (...), identifikatu nituen botere harremanak, gizonen nagusigoa eta emakumeok izan ditugun zailtasun ezberdinak» (Neska, 27).

Erresistentziak gorabehera, politika liskartsuaren berrikuspenak eta mugimenduen dibertsifikazioak, partzialki bada ere, hauxe ahalbidetu dute: maskulinitate hegemonikoarekin lotuta dagoen aktibista-eredu nagusia auzitan jartzea esparru aktibistan. Agentzia feministen azken urteotako presioak gazte-mugimenduen estrategiaren barruan printzipio feministak txertatzea lortu du, baita prozedura zuzentzaileak instituzionalizatzea ere, hala nola jarduteko protokoloak, komunikazio-ereduak, berdintasunean espezializatutako arloak eta feminismo-arduradunak... Neska aktibista gazteenek eta, oro har, aktibismoan ziklo politiko berrian hasi direnek adierazten dute bateratu egiten dituztela beren identitate aktibistak eta beste identitate batzuk, eta albo batera utzi dutela aurreko belaunaldiek, etengabeko errepresioari erantzuteko, gauzatzen zuten aktibismo intentsiboa eta dimentsio bakarrekoa. Egiten duten ikasketa politikoen kontakizunetan ez dituzte hainbeste azpimarratzen bizi

izandako ondoezak, kontziente dira beren kokapenaz, eta aurreko belaunaldietako neskek baino erreminta kognitibo nahiz praktiko gehiago dute agentzia gisa jarduteko. Ondorioz, aktibisten bizitzarako iraunkorrakoak diren aktibismo moldeak eratzen hasi dira; eredu horiek, inplizituki, gorputzen zaurgarritasuna onartzen dute. Esperientzia aktibista luzeko mutil batzuk ere partekatzen hasi dira ikuspegi hori.

«Orain uste dut badela politika amableago bat (...) Nik militantzia hasi nuen ETaren arma-uztearen ostean (...) Nik klandestinitatea ez dut bizi izan, bizi izan dut baina kanpotik (...) Militatzea ez da prioritatea bizitzan (...) garrantzitsua da baina ez da zentrala» (Neska, 26).

«Jendeak gustura egon behar du hasieratik (...), eta pisua eman behar diegu bertan sortzen diren harreman sozialei, eta harreman horiek zaindu behar ditugu» (Mutila, 26).

Mugimenduen antolakuntza-kulturaren barrera egindako introspekzioak eta auto-analisiak bestelako maskulinitate-ereduak eta araubidezkoak ez diren identitateak onestea erraztu du. Era berean, mutil gazte-heldu zenbaitu bere ibilbide aktibista modu kritikoan ebaluatzeko aukera ere zabaldu die, lidergoak eta protagonismoa beren gain hartzeko izan duten pribilegiozko estatusaz jabetu arte. Halaz ere, elkarrizketetan jasotakoaren arabera, birsozializazio aktibista maskulino horrek sendotzeko denbora luzea eskatzen duela dirudi, baita hasierako *habitus*a gazte-helduaren berriro orientatzeko ikasketa politikoak metatzea eta kapital kognitibo esanguratsua eskuratzea ere.

«Uste dut niri bai izan zaidala faktore potente bat mutila izatea [nire mugimenduko ibilbidean] (...) Mutiloi erakusten zaigunez gehiago izaten "echado para adelante", ahotsa altxatzen eta beste modu batera konportatzen. Hau bai pentsatu dut askotan. Ni X mugimenduan sartu nintzenean, komunikazio lantaldean (...) ginen hiru pertsona, bat neska. Neska hori zegoen hasieran ardurakarekin. Gerora, momentu batean, aukeratu behar zen arduraduna, eta berak esan zuen nahi zuela... niri ere atera zitzaidan etorriko nintzela lasai, ez botere gogoagatik baizik eta prest nengoelako hori egiteko. Eta orduan neska geratu zen kanpoan. Eta urte batzuetara, konturatu nintzen pertsona horren bidea hor amaitu zela. Eta, ziurrenik, ni bezain prest edo prestatuago zegoen, zeren denbora gehiago zebilen hor. Ziurrenik berari eragin zion neska izateak momentu klabe horretan» (Mutila, 33).

Berrikuspen-prozesu hori ez dago anibalentziaz eta beldurrez salbuetsirik. Alde batetik, neska gazte feministak jakitun dira gazte-mugimenduen barneko boterearen egiazko banaketak erresistentziak eta gatazkak sortuko dituela aurrerantzean ere, eta kostu handiko ahalegina eskatuko duela neskentzat eta identitate ez-normatiboak dituzten pertsonentzat, hala ikuspegi pertsonalean nola emozionalean. Beste alde batetik, beren arrakastaren ifrentzu moduan interpretatzen dituzte neska aktibista trebatuenek kontrajarritako hainbat joera. Bada, onartzen dute belaunaldi berriak integratzen dituzten talde feministen gehikuntza, dibertsifikazioa eta jendarteratze-prozesuak gauzatu direla gaur egun. Baina, aldi berean, ahalduntzea ulertzean neoliberalismoaren moldeekin bat egiten duten korronteen garapena, neska gazte askok eskuratu duen hertsadurarik gabeko indibidualizazioaren eta agentzia librearen ideia, eta ohiko balio feministen arinkeria- eta merkaturatze-arriskua ere sumatzen

dituzte. Espainiako neska gazteen artean Gutiérrezek, Menak eta Calvok (2019) egindako azterketaren ildo berean, ikusten dute Euskal Herriko aktibismoaren arloan ere, askatasun eta berdintasun formalaren onarpenak neska gaztetxoenei errazago jokatzen uzten diela emulazio maskulinoaren jokoa, eta horrekin batera, borondate pertsonalaren ahalmena barneratzea eta desberdintasunaren interpretazio subjektiboak egitea, egiturazko desberdintasun hori diferentziaren noziara murriztu ondoren.

«Daukagun sozializazio herentziagatik, figura erreferentzialak gizonak dira, eta normalean emakumeak hasieratik daude horrelako mugimenduetan, baina ez dira erreferentzialak, atzean daude, beste lan batzuk egiten dituzte. Eta hori gainditzea oso traumatikoa izan daiteke. Zeren zaila da pribilegio batzuk seinalatzea inor iraindu gabe. Eta espazioa disputatu behar hori ez dugu ikusten, eta ez dugu ikusi nahi askotan. Eta hori reto inportante bat da» (Neska, 25).

«Nire inguruan ikusten dudanagatik, pila bat talde sortu dira azken urteotan, mugimendu feministan izan da kriston boom-a. Horrek ere badauka bere parte txarra. Balore feministak modan daudelako, eta moda hori nola gestionatu jakin behar da. Baina, egon da kriston eztanda (...) Nik ikusten ditut 16 eta 17 urtetako neskak (...) hor egon da aldaketa ideologiko bat eta bizi ereduetan ere aldaketa ikaragarria» (Neska, 26).

## 6. Konklusioak

Mugimendu liskartsuei buruzko beste azterlan batzuen ildo beretik, gure analisiaren emaitzek berretsi egiten dute sozializazio aktibistaren bitartez genero-sistemak birsortzeko duen indarra. Era berean, erakusten dute liskar-errepertorio maskulinizatu batzuek, *de facto*, mugimenduok formalki sustatzen dituzten balio emantzipatzaileen kontra egin dezaketela. Emaizta horiek bat datoz beste toki batzuetako gune liskartsuetan egindako ikerketen ondorioekin (Montesinos-Coleman eta Bassi, 2011; Rossdale, 2019). Baina, bestalde, gure analisiak aukera eman digu genero-sistema eraldatzeko bidean mugimendu liskartsuetan eragin dezaketen zenbait faktore identifikatzeko ere, beste gune aktibista batzuk ikertzeko iradokitzaileak izan daitezkeenak. Gaiari buruzko etorkizuneko ikerketetan, gure ustez, kontuan hartu beharko lirajtekeen hiru faktore nabarmentzen ditugu hemen. Lehenengoa, familia-genealogia feministetako eta kultura-kapital handiko emakume aktibisten presentziaren garrantzia, lidergo disidenteak eraiki eta subjektu feministak bultzatzen dituzten mugimenduen barruan. Bigarrena, testuinguru politikoen aldaketen eragina, bereziki, errepertorio bortitzenak arintzen laguntzen dutenean, eta gizartean proposamen feministen aldeko genero-erregimenak errazten dituztenean. Azkenik, mugimenduek erreflexibitateko duten gaitasuna eta antolakundeetan barne-ikuskapenerako mekanismo instituzionalizatuak ezartzeko ahalmena.

Ildo horretan, lehenik eta behin, gure azterlanak agerian uzten ditu sozializazio politikoaren dinamiketan agentziaren eta egituraren artean edo, nahiago bada, aldaketaren eta erreprodukzioaren artean sortzen diren tentsioak. Azken urteotako ikerketa askok gazte-agentziaren gaitasunean jarri dute arreta (Youniss et al., 2002; Amnå et al., 2009; Cuzzocrea eta Collins, 2015). Halaz ere, Hego Euskal Herrian egindako ikerketa honek erakusten du gazteen aktibismo liskartsuaren esparruan

tinko txertaturik dagoela oraindik genero-araubidea, areago, egiturazko izaera daukala, halako moldez eduki ere, non ustez araubide horri aurre egiteko helburua duten esparru kontra-hegemonikoetan ere —sozialistak, independentistak, formalki feministak diren espazioetan— behin eta berriro sortzeko aukera duen. Izan ere, aktibismo liskartsuaren arloko ikaskuntza politikoa generizatutako sozializazio orokor baten parte da, konfrontazio-politikan eskatzen diren eredu aktibistek —maskulinitate hegemonikoari lotutakoak— errazten eta berrindartzen dutena, eta, hartara, neskak mendekotasun- edo bazterketa-egoeran jartzen dituen. Paradoxa horrek gazteen ikerketan generoaren kategoria txertatzeko zailtasunei buruzko eztabaidara garamatza, bai eta agentzia eta haren egitura-testuinguruak generoaren ikuspegitik aztertzeko desafiora ere (Benasso, Helve eta Merico, 2018).

Bigarrenik, analisiak iradokitzen du neska aktibistek agentzia kolektibo gisa duten gaitasunak egiturazko mugak dituela genero-araudiaren agente disidente gisa sortzeko eta, batez ere, agente feminista gisa jarduteko. Baina,aldi berean, erakusten du muga horiek aldakorak direla adinaren, metatutako kapital aktibistaren, kapital kulturalaren eta genealogia feministetako kide izatearen arabera. Hau da, hezkuntza-maila altuak, esperientzia aktibistako urteek eta ama edo senide feministek sozializazio goiztiarren duten eraginak erresistentziarako eta birsozializatorako gaitasun feminista errazten dute gazteen aktibismoaren esparruan. Hain zuzen ere, faktore horiek botere-esparruan kapital sinboliko gisa jarduten duten disposizio eta gaitasun jakin batzuk —berariazko *habitus* bat— ematen dizkiete neskei. Beste azterlan batzuek ere planteamendu horixe bera berresten dute. Kokatutako agenteak diren heinean, emakumeek ekintza-bide desberdinak erabil ditzakete eskura dituzten baliabideen arabera (Belvedresi, 2018). Era berean, agentzia, autonomia eta ahalduntze-maila, testuinguru sozialak eta beste faktore soziodemografiko batzuek murrizten edo errazten dituzte, hala nola klaseak eta hezkuntza-mailak (Charrad, 2010; Mishra eta Tripathi, 2011). Madhok, Philips and Wilson (2013) adierazten dutenez, agentzia tentsioz beteriko esparru baten barruan gauzatzen da beti, eta desberdintasun sakonak eta botere-dinamikak dituzten harreman sozialetan txertatzen da. Izan ere, agentziaren osagai berezkoa da pribilegioa. Hori dela eta, agentzia feminista, sortu sortzen denean, «agentzia mugatu» gisa kontzeptualizatu daiteke, Evansen (2002) *bounded agency* terminoa erabilita, hau da, testuinguruak eragindakoa baina ez guztiz determinatua den agentzia sozial mota bat da. Ondorioz, egitura/agentzia dialektikan ulertuta, hausturen eta jarraitutasunen artean egiten du aurrera genero-zuzentasunak (Esteban, Hernández eta Imaz, 2017).

Azkenik, azterlanak agerian uzten du testuinguruak duen garrantzia. Ildo horretan, nabarmentzekoa da faktore endogenoek eta mugimenduak kanpokoek elkarri eragiten diotela. *Esparruko aukera-egituraren* (Ancelovici, 2021) kanpoko faktoreen artean, azpimarratu behar da Hego Euskal Herrian aldaketaren aldeko *genero-erregimena* dagoela (Taylor, 1999), presio egiteko eta aitorten soziala lortzeko gaitasuna izan duten mugimendu feministen garapenaren ondorioz. Era berean, joera global batzuek ere eragin dute aukeren irekiera horretan, hala nola gazteen agenda garaikideetan kokatutako ekintzen dibertsifikazio eta hedapen progresiboak eta subjektu politikoen dibertsifikazio eta deszentratzeak, nahiz eta mugimenduetako emakume feministek beldurra ere adierazten duten gazteen



belaunaldi berrietan kultura-eraikuntza dominanteek daukaten eraginaren aurrean —indibidualizazio progresiboa, neska gazteen ustezko askatasuna, «aukerako biografiei» buruzko sineskerak, etab. —. Hain zuzen ere, beste testuinguru batzuetan hainbat aztertzaile feministak analizatutako kultura neoliberalaren eraginak dira azken prozesu horiek (McRobbie, 2009; Risman, 2018; Medina-Vicent, 2020; Banet-Weiser, Gil eta Rottenberg, 2020). Bestalde, faktore endogenoen artean, ikusi dugu ekintza armatuen desagerpenak, konfrontazio-errepertorioak ahultzeak, eta desobediencia zibilar lotutako ereduak eta bestelako mobilizazio autoadierazkorren gehikuntzak aldaketarako aukerak zabaltzen laguntzen dutela. Ildo horretan, beren ikasketa politikoa ziklo politiko berriaren aurretik egiten hasitako nesken belaunaldiak bigarren belaunaldikoak baino erresistentzia eta oztopo handiagoak azaldu ditu egindako ibilbide aktibistan. Hala eta guztiz ere, egiaztatzen da nesken belaunaldi horrek bizi izandako esperientzia negatiboak inflexio-puntu bat izan zirela neska batzuentzat agentzia feministak eratzeko unean. Era berean, agentzia horiek indartu egin dira mugimenduaren antolakundeen barruan autorreflexiorako eta prestakuntza politikorako abian jarritako barne-prozesu organikoaren bitartez, mekanismo zuzentzaileak ezartzea lortu dutenean.

## 7. Erreferentziak

- Ahmed, Sara (2009): *The Promise of Happiness*, Duke University Press, Durham.
- Alison, Miranda H. (2009): «Introduction», in Miranda H. Alison (argtz.), *Women and political violence. Female combatants in ethno-national conflict*, Routledge, New York, 1-34.
- Alvarez Molés, Pili (2010): *Las relaciones de género en los centros sociales okupados de Bilbao*. <http://handle.net/10810/16184>
- Alvarez Molés, Pili (2012): *Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes de Euskadi*. [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_bekak/es\\_def/adjuntos/B-3\\_2011.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/B-3_2011.pdf)
- Amnå, Erik et al. (2009): «Political Socialization and Human Agency: The Development of Civic Engagement from Adolescence to Adulthood», *Statsvetenskaplig Tidskrift*, 111(1), 27-40.
- Ancelovici, Marcos (2021): «Bourdieu in movement: toward a field theory of contentious politics», *Social Movement Studies*, 20(2), 155-173. Doi: 10.1080/14742837.2019.1637727
- Asal, Víctor et al. (2013): «Gender ideologies and forms of contentious mobilization in the Middle East», *Journal of Peace Research*, 50(3), 305-318. Doi: 10.1177/0022343313476528
- Atutxa et al. (2021): *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte*, UEU, Bilbo.
- Balcells, Laia; Daniels, Lesley-Ann eta Escribà-Folch, Abel (2016): «The determinants of low-intensity intergroup violence: The case of Northern Ireland», *Journal of Peace Research*, 53(1), 33-48. Doi: 10.1177/0022343315610399
- Banet-Weiser, Sarah; Gill, Rosalind eta Rottenberg, Catherine (2020): «Postfeminism, popular feminism and neoliberal feminism?», *Feminist Theory*, 21(1), 3-24. Doi: 10.1177/1464700119842555
- Bargel, Lucie (2005): «La socialisation politique sexuée: apprentissage des pratiques politiques et normes de genre chez les jeunes militant-e-s», *Nouvelles Questions Feministes*, 24(3), 36-49. Doi: 10.3917/nqf.243.0036
- Batliwala, Srilatha (2010): *Feminist Leadership for Social Transformation: Clearing the Conceptual Cloud*, AWID, CREA, Bangalore.

- Belvedresi, Rosa Elena (2018): «Historia de las Mujeres y agencia femenina: algunas consideraciones epistemológicas», *Epistemología e Historia de la Ciencia*, 3(1), 5-17.
- Benasso, Sebastiano; Helve, Helena eta Merico, Maurizio (2018): «Between Cultures and Transitions: Gender Perspectives», *Youth Studies. AG About Gender*, 7(13), 1-24. Doi: 10.15167/2279-5057/AG2018.7.13.673
- Bhattacharjya, Manjima et al. (2013): «Why gender matters in activism: feminism and social justice movements», *Gender & Development*, 21(2), 277-293. Doi: 10.1080/13552074.2013.802150
- Bobel, Chris (2007): «I'm not an activist, though I've done a lot of it': Doing Activism, Being Activist and the "Perfect Standard"», *Social Movement Studies*, 6(2), 147-159. Doi: 10.1080/14742830701497277
- Bourdieu, Pierre (1991): *El sentido práctico*, Taurus, Madrid.
- Bourdieu, Pierre eta Wacquant, Loïc (1992): *Réponses. Pour une anthropologie réflexive*, Le Seuil, Paris.
- Bourdieu, Pierre (1999): *Meditaciones Pascalianas*, Anagrama, Barcelona.
- Bourdieu, Pierre (2002): *Masculine Domination*, Stanford University Press, Stanford.
- Calder-Dawe, Octavia eta Gavey, Nicola (2016): «Making sense of everyday sexism: Young people and the gendered contours of sexism», *Women's International Forum*, 55, 1-9. Doi: 10.1016/j.wsif.2015.11.004
- Calvès, Anne-Emmanuèle (2009): «Empowerment: The History of a Key Concept in Contemporary Development Discourse», *Revue Tiers Monde*, 200(4), 735-749. Doi: 10.3917/rm.200.0735
- Charrad, Mounira (2010): «Women's agency across cultures: Conceptualizing strengths and boundaries», *Women's Studies International Forum*, 33, 517-522. Doi: 10.1016/j.wsif.2010.09.004
- Coffé, Hilde eta Bolzendhal, Catherine (2010): «Same games, different rules? Gender differences in political participation», *Sex Roles*, 62, 318-333. Doi: 10.1007/s11199-009-9729-y
- Connell, Robert W. eta Messerschmidt, James W. (2005): «Hegemonic Masculinity: Rethinking the Concept», *Gender & Society*, 19(6), 829-859. Doi: 10.1177/0891243205278639
- Craddock, Emma (2019): «Doing 'enough' of the 'right' thing: The gendered dimension of the "ideal activist" identity and its negative emotional consequences», *Social Movement Studies*, 18(2), 137-153. Doi: 10.1080/14742837.2018.1555457
- Csordas, Thomas J. (1993): «Somatic modes of attention», *Cultural Anthropology*, 8(2), 135-156. Doi: 10.1525/can.1993.8.2.02a00010
- Cuzzocrea, Valentina eta Collins, Rebecca (2015): «Collaborative Individualization? Peer-to peer Action in Youth Transitions», *Young*, 23(2), 136-153. Doi: 10.1177/1103308815569390
- Dodson, Kyle (2015): «Gendered Activism: A Cross-national View on Gender Differences in Protest Activity», *Social Currents*, 2(4), 377-392. Doi: 10.1177/2329496515603730
- Elizalde, Silvia (2018): «Hijas, hermanas, nietas: genealogías políticas en el activismo de género de los jóvenes», *Ensamble*, 4(8), 86-93.
- Ennis, James G. (1987): «Fields of action: Structure in movements' tactical repertoires», *Sociological Forum*, 2, 520-533. Doi: 10.1007/BF01106624
- Esteban, Mari Luz (2017): *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Lisipe, 2. Susa, Zarautz, Iruñea, Larrabetzu.
- Esteban, Mari Luz (2015): «La reformulación de la política. Esbozo de una antropología somática y vulnerable», *Ankulegi*, 19, 75-93.

- Esteban, Mari Luz; Hernández, Jone Miren eta Imaz, Elisabete (2017): «Equality and gender amongst Basque people: A crossroads of continuities and ruptures», *Athenea Digital*, 17(2), 31-55. Doi: 10.5565/rev/athenea.1675
- Esteban, Mari Luz (argtz.) (2020): *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik*, UPV-EHU
- Etxebarrieta, Oihana eta Rodríguez, Zuriñe (2016): *Borroka armatua eta kartzelak*. Lisipe, Susa, Zarautz
- Evans, Karen (2002): «Taking control of their lives? Agency in young adult transitions in England and the New Germany», *Journal of Youth Studies*, 5(3), 245-269. Doi: 10.1080/1367626022000005965
- Ferret, Jérôme (2014): «Young radical nationalists: Prisoners of their myth? The case of the *Kale Borroka* in the Spanish Basque Country», *Current Sociology*, 62(7), 1017-1035. Doi: 10.1177/0011392114549892
- Fraser, Nancy (1990): «Rethinking the Public Sphere. A Contribution to the Critique of Actually Existing Democracy», *Social Text*, 25/26, 56-80. Doi: 10.2307/466240
- Galardi, Maider (2017): *Ernai gazte erakundearen "Urrats Feminista": aldatetaren nolakotasuna aztertzen*. <https://addi.ehu.es/handle/10810/23512>
- Gil, Silvia (2011): *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión*, Traficantes de Sueños, Madril.
- Gonick, Marnina et al. (2009): «Rethinking Agency and Resistance. What Comes After Girl Power?», *Girlhood Studies*, 2(2), 1-9. Doi: 10.2979/NWS.2006.18.2.1
- Gordon, Hava Rachel (2008): «Gendered paths to teenage political participation», *Gender & Society*, 22(1), 31-55. Doi: 10.1177/0891243207311046
- Gordon, Hava Rachel (2009): *We Fight to Win. Inequality and the Politics of Youth Activism*. New Rutgers University Press, New Jersey.
- Gutiérrez, Marta; Mena, Luís eta Calvo, Kerman (2019): *¿Desenganchadas de la igualdad? Narrativas juveniles sobre la igualdad de género*, Centro Reina Sofía, FAD, Madril.
- Hamilton, Carrie (2007): «The Gender Politics of Political Violence: Women armed Activists in ETA», *Feminist Review*, 86(1), 132-148. Doi: 10.1057/palgrave.fr.9400338
- Hooghe, Marc eta Stolle, Dietlind (2004): «Good Girls Go to the Polling Booth, Bad Boys Go Everywhere: Gender Differences in Anticipated Political Participation Among American Fourteen-Years-Old», *Women and Politics*, 26(3/4), 1-23. Doi: 10.1300/J014v26n03\_01
- Kuhn, Hans Peter (2010): «International Perspectives on Political Socialization and Gender: An Introduction», in Angela Ittel, Hans Merckens, Ludwig Stecher, eta Jürgen Zinnecker (argtz.) *Jahrbuch Jugendforschung*, 10 Ausgabe, Springer VS, 11-24.
- Larrinaga, Ane eta Amurrio, Mila (2017): «Movimientos Sociales, Participación y Dominación», in Jone Martínez-Palacios (argtz.), *Participar desde los Feminismos*, Icaria, Bartzelona, 145-172.
- Larrinaga, Ane; Zabalo, Julen; Epelde, Maddalen; Iraola, Iker; Amurrio, Mila eta Odriozola, Onintza (2020): *Parte hartu ala paso egin? Gazteen ikasketa politikoak aztergai*, UPV/EHU, Parte Hartuz. <http://hdl.handle.net/10810/45522>
- Larrinaga, Ane; Iraola, Iker; Odriozola, Onintza; Amurrio, Mila; Zabalo, Julen eta Epelde, Maddalen (2021): «Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai», *JAKIN*, 243, 11-65.
- Larrinaga, Ane eta Amurrio, Mila (2023): «Legacy and Rupture. The political learning of young left-wing Basque nationalists in the post-ETA period», *Young*, 31(1), 22-37. Legacy and Rupture: The Political Learning of Young Left-wing Basque Nationalists in the Post-ETA Period (sagepub.com)

- Larrinaga, Ane; Odriozola, Onintza; Amurrio, Mila eta Iraola, Iker (2023): «Exploring New Citizenship Practices: The Meaning of Young Activists' Political Engagement in the Basque Country», in Julen Zabalo, Igor Filibi eta Leire Escajedo (argtz.), *Made-to-Measure Future(s) for Democracy?*, Springer, Cham, 217-239. Made-to-Measure Future(s) for Democracy? (oapen.org)
- Letamendia, Francisco (1997): *Game of Mirrors: Centre-Periphery National Conflicts*, Routledge, Londres.
- Letamendia, Arkaitz (2018): «Las transformaciones de la movilización social en Euskal Herria: del posfranquismo a la década de 2010», *Anuario de Movimientos Sociales 2018*, Betiko Fundazioa. [http://fundacionbetiko.org/wp-content/uploads/2019/02/arkaitz\\_letamendia.pdf](http://fundacionbetiko.org/wp-content/uploads/2019/02/arkaitz_letamendia.pdf)
- Madhok, Sumi; Philips, Anne eta Wilson, Kalpana (argtz.) (2013): *Gender, Agency, and Coercion*, Palgrave Macmillan, Basingstoke, New York.
- Martínez-Palacios, Jone et al. (2015): «Women's Hampered Participation: The Case of Processes of democratic Innovation in the Basque Country», *Participations*, 12(2): 31-56, Doi:10.3917/parti.012.0031
- McAdam, Doug; Tarrow, Sidney eta Tilly, Charles (1996): «To Map Contentious Politics», *Mobilization An International Quarterly*, 1(1), 17-34. Doi:10.17813/maiq.1.1.y3p544u2j1l536u9
- McRobbie, Angela (2009): *The Aftermath of Feminism: Gender, Culture and Social Change*, Sage Publications, Londres.
- Medina-Vicent, María (2020): «Los retos de los feminismos en el mundo neoliberal», *Revista Estudios Feministas*, 28(1), 1-12. Doi: 10.1590/1806-9584-2020v28n157212
- Mishra, Nripendra eta Tripathi, Tulika (2011): «Conceptualising Women's Agency, Autonomy and Empowerment», *Economic & Political Weekly*, 46(11), 58-65. <http://www.jstor.org/stable/41151972>
- Montesinos-Coleman, Lara eta Bassi, Serena A. (2011): «Deconstructing Militant Manhood», *International Feminist Journal of Politics*, 13(2), 204-224. Doi: 10.1080/14616742.2011.560039
- Moser, Caroline eta Clark, Fiona (argtz.) (2001): *Victims, perpetrators or actors? Gender, armed conflict and political violence*, Zed Books, Londres, New York.
- Neetu, John A. et al. (2017): *Gender Socialization during Adolescence in Low- and Middle-Income Countries: Conceptualization, influences and outcomes*, ICRW, Unicef, Florentzia.
- Odriozola, Onintza; Iraola, Iker eta Zabalo, Julen (2020): «A rolling stone gathers no moss: Evolution and current trends of Basque nationalism», in Chris Kostov (argtz.), *Separatism and Regionalism in Modern Europe*, Logos Verlag Berlin GmbH, Berlin, 39-71.
- O'Keefe, Theresa (2013): *Feminist Identity Development and Activism in Revolutionary Movements*, Palgrave Macmillan, Basingstoke.
- Ridgeway, Cecilia L. eta Correll, Shelley J. (2004): «Unpacking the Gender System. A Theoretical Perspective on Gender Beliefs and Social Relations», *Gender & Society*, 18(4), 510-531. Doi: 10.1177/0891243204265269.
- Risman, Barbara R. (2018): *Where the Millennials Will Take Us: A new generation wrestles with the gender structure*, Oxford University Press, Oxford.
- Rodríguez Lara, Zuriñe (2017): «Motivaciones, ingreso y experiencias participativas de las mujeres en ETA», *Política y Sociedad*, 54(2), 421-441. Doi: 10.5209/POSO.52741
- Rossdale, Chris (2019): *Resisting Militarism: Direct Action and the Politics of Subversion*, Edinburgh University Press, Edinburgo.

- Scharff, Christina (2016): «Gender and neoliberalism: Young women as ideal neoliberal subjects», in Simon Springer, Kean Birch eta Julie MacLeavy (argtz.), *Handbook of Neoliberalism*, Routledge, New York, 217-226.
- Taft, Jessica K. (2010): *Rebel Girls. Youth Activism and Social Change across the Americas*, New York University Press, New York.
- Taft, Jessica K. (2014): «The Political Lives of Girls», *Sociology Compass*, 8(3), 259-267. Doi:10.1111/soc4.12135
- Tarrow, Sidney (2013): «Contentious Politics», *The Wiley-Blackwell Encyclopedia of Social and Political Movements*, John Wiley & Sons.
- Taylor, Judith (1998): «Feminist Tactics and Friendly Fire in the Irish Women's Movement», *Gender & Society*, 12(6), 674-691. Doi: 10.1177/089124398012006005
- Taylor, Verta (1999): «Gender and social Movements. Gender Processes in Women's Self-Help Movements», *Gender & Society*, 13(1), 8-33. Doi: 10.1177/089124399013001002.
- Tilly, Charles; Tarrow, Sidney eta McAdam, Doug (2004): *Dynamics of Contention*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Valles, Miguel (2002): *Entrevistas cualitativas. Cuadernos Metodológicos*, 32, CIS, Madril.
- Van den Broek, Hanspeter (2004): «The Legitimation of Street Violence in the Political Discourse of Radical Basque Nationalists», *Terrorism and Political Violence*, 16(4), 714-736. Doi: 10.1080/095465590885141
- Wakefield, Shawna (2015): *Transformative and Feminist Leadership for Women's Rights*. <https://www.oxfamamerica.org/explore/research-publications/transformative-feminist-leadership-womens-rights>.
- Youniss, James et al. (2002): «Youth Civic Engagement in the Twenty-First Century», *Journal of Research on Adolescence*, 12(1), 121-148. Doi: 10.1111/1532-7795.00027
- Zubiaga, Mario (2007): *Boteretik eraginera. Mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina-Maltzagako liskarretan* [dokto-re-tesia], UPV/EHU. [https://www.academia.edu/48924813/Boteretik\\_eraginera\\_Mekanismoak\\_eta\\_prozesuak\\_Leitzarango\\_eta\\_Urbina\\_Maltzagako\\_liskarretan](https://www.academia.edu/48924813/Boteretik_eraginera_Mekanismoak_eta_prozesuak_Leitzarango_eta_Urbina_Maltzagako_liskarretan)
- Zubiaga, Mario (2012): «Democratization and contentious politics: Basque state-building as collective action», in M. Zubiaga (argtz.), *Towards a Basque State. Nation-building and institutions*, IparHegoa Fundazioa, UEU, Bilbo.
- Zubiaga, Mario (2014): «El ciclo de protesta en Euskal Herria: hegemonía y radicalización democrática», in Ricard Vilaregut, Daniel Gómez, Pedro Ibarra eta Mario Zubiaga, *La rebelión vasca. Una historia de l'Esquerra Abertzale*, Pol-len Edicions, 2-35.
- Zumalabe Fundazioa (2014): *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen*, Zumalabe Fundazioa.

